

BERMEO'KO EUSKERA TA ABOSKERA

Olazar'tar Martin

Euskalerrri guztian egiten dan euskerearen barruan eta bizkaierearen maillan, Bermeo'ko euskera jakingarria ta aztergarria da.

Sarritan entzuten dogu olako zerbait: Zer deritxatzu Bermeo'ko euskerari? Txarto ala ondo egiten dogu euskeraz? Eta erantzuna ez da ain erreza. Bermeo'ko euskereak ba-daukaz ain gauza eredugarri diranak, baiña bai beste batzuk Bizkai'ko euskerearen arauetatik urrintzen diranak be. Txarto dagozala? Nik ez neuke ain errez ori esango. Ondo ta txarto zer dagon jakitea ez da ain erreza.

Gauza bat bai nik esango neuke, berbetea bera alde batera itzita. Txarto dagoala erderara errezegei jotea, esaldi bat edo bi euskeraz egin eta urrengo bi edo iru erderaz egitea. Eta sarritan orretarako errazoi barik. Olako elebitasuna euskerearentzak arrisku aundikoa da, bide orretatik urteen joanean erderaz egitera joko dogu. Gaur be gure umeak eta gaztetxuak, askok, ez dauke erreztasun larregirik euskeraz berba egiteko. Alegindu gaitezan beti euskeraz egiten, alan eta guzti be erdereza edonondik sartuko jaku-ta.

Baiña lan onetan ez daukagu olako arazoetara sartu bearrik. Olan baiño garanagoa da gure elburua. Abostegia, fonetikea, agoz berbak esateko erea artu dogu gai lez, eta orretan ez dago salakuntzarik egin bearrik, zelan berbak esaten diran agertzea da naikoa, bear ba'da bizkaitarrak daukaguzan jakerak kontuan dirala.

Ondo izango litzake Bermeo'ko itz-osotzea edo morfolojia aztertzea, esaterako «*nik bost pezeta dakot*» edo antzeko esaldiak, asko eta asko, adizkizun zuzenaren (complemento directo) eta askorena dan aditz-zatia edo morfema kentzen dala. Bizkai guztian «*nik bost pezeta dekodiz*» esango leukee.

Lan egokia litzake, baita, Bermeo'ko iztegia, arraintzaleena naiz besteena aztertzea be. Eta aberastasun aundia aurkituko genduke, baiña besteren batek egin al izango dau, bear ba'da.

Oraintsu entzundako eta arrigarri izan jatan beste esaldi bat emen agertu barik ez noa aurrera: «*Bazindot urten?*» «*Urten neike edo neiteke?*» esateko. Olan dala, «*ezin dot>tn* aurkakoa «*bazin dot*» Txarto dagon? Ez dakit, baiña Bermeo'n baiño ez dala esaten, bai. Arrigarria dala be bai. Eta polita be bai.

Abostegiari, fonetikari, begira egingo dogu ba lantxu au. Eta larregi zeaztu barik. Gaia berez luzea da, baiña laburpena egiten aleginduko naz. Gai au 1969'an aztertu neban lenengoz, izkuntzalaritzarako maisu-lan txikia egiteko (tesinea). Eta orduan Mungia-inguruko euskerearen eta Bermeo ta Ondarru'koaren abostegia alkarren parean ipiñi nebazan lur-irudi edo mapa batzuk bitarte dirala. Gaia or agertzen da eta jakingarriak be ortik aterako dodaz. Eta iñorentzat aspergarri izan ez daiten trebekeri edo teknizismoak alde batera izten aleginduko naz, ulerterreza izan daiten. Ez dakit irakurleen nekeari bear dan besteko aringarria emongo dautsodan.

ABOTS-BAKARTIAK (BOKALAK) BERMEO'N

Aldatzea errez

Euskereak erreztasun geiago dauko abost bakartiak (bokalak) aldatzeko gaztelereak baiño. Errez sartzen dogu *e* dagon lekua / edo *o* dagon lekuan *u* edo *a* dagon lekuan *e*: *Etxei, etxia, etxie etxii*; edo *lengoa, lengue, lengu*; edo *joan, juen juu*; eta olako aldakuntzak, euskaldun barrien buruko miña sortzeko bideak, asko ta asko dira gure euskeran, Bermeo'n bear ba'da iñon baiño geiago, ikusiko dogun lez.

Nondik datorren aldatzeko erreztasun aundi ori? Batzuk diñoñez zeatz berba egiteko ardura gitxi artzen dogulako, beste batzuk osteria euskera idatzia gitxi dalako, eta ba-dira beste errazoi sakon bat dakarrenak be: Erdeldunen a'tik e'ra bide luzeagoa dagoala gureetan baiño.

Jokerak

Izkuntza guztiak erabilliaz gastau egiten dira, euskerea be bai. *Etxea* esan-bearrean *etxi* esatea, euskerea gastatea da. Eta batzuk geiago gastau dabe euskerea beste batzuk baiño. Geien Bizkaia'n Ondarru'tarrak eta gitxien Arratiarrak. Ondarru'n *etxi* esaten da eta Arratia'n *etxea*.

Gastatze-bide onetan iru jokera daukoz euskereak batez be: Bakartiak edo bokalak itxitea ($a > e$, $e > i$, $o > u$) *Alaba-a alabie* edo *besoa besue*, lenengoa; lagunduak edo kontsonatean agogaiñeratzea (*it > ttx*) *aita aítxe*; bigarrena; eta galtzea *esan dautzut > esantzut*, irugarrena. Erriak bere berbe-

tan euneko berrogei inguru jaten edo galtzen dau. Kontu egizu zelako burokomiña liburutik euskerea ikasi dabenentzat.

Irudibidez

Olako jokabideak non eta zelan beteten diran agertzeko biderik egokiena ta ulertzeko errezena mapak edo lur-irudiak dira. Ba-dago Euskalerrriaren euskalki edo dialektoloji-txorta bat, atlas bat, egiteko amesa, baiña lan luzea ta sakona da. Noz egingo ete da? Eta lan ori egiteko iztegia, itz-osotzea ta olakoak kontuan artu bearko dira, baiña izkuntzalariak diñoenez, dialektolojiaren santutegia, abostegia, fonetikea da.

Bizkai'ko euskerea aundi-aundika begitu ezkeru zati bi, batez be agiri dira: Ubide'tik Ondarru'ra, emendik Bermeo'ra eta Mungia'ra. Eta bestea Arratia'tik Txori-errira eta emendik Mungia'ra. Lenengoan agogaiñeratz e aundia ta bokalak itxite sakona, bigarreanean jokera biak gitxiago.

Abots bakar mugatzaillea: -aa, -ea

Euskaldunak, erriak berak, euskera erreza gura dogu, erreza ulertzeko eta erreza egiteko. Orregaitik, esateko gaitzak diran gauzak erreztu cgiten doguz. Orixe da emen aitatzen doguzan araurik geienen sustraia ta oiñarria.

Esaterako: *Lau alaba* esaten dogu, baiña bat eta bera ezaguna danean mugatzaillea ipiñi bear jako, eta mugatzaillea azkeneko beste *a* bat da. Esaterako, *zure alabaa ezagutu dot*. Baiña *a* bi orreik jarraian esatea gaitxa da. Zer egin? Giputzak *a* biakaz bat egin dabe: *zure alaba ezagutu dot*. Baiña bide ori ez da cgokia bizkaitarrentzat, eta *alabea* egin dogu. Gero *ea* esatea be erreza ez dala-ta, *-ia* ta *-ie* ta *-//* asmau doguz. Orregaitik Mungia-aldeko erri batzutan *alabia* esaten da, Bermeo'n eta beste erri batzutan *alabie*, Ondarru'n *alabi*.

Gaiñera beste au be kontuan artu bear dogu: Or euskerearen aurrerabide edo eboluziñoa agiri dala eta gaur *alabea* csaten dabenak beste eun edo berreun urte barru *alabia* esango dabela, eta gaur *alabia* esaten dabenak orduan *alabie* eta gaur *alabte* diñonak orduan *alabi*.

Konturatuko da irakurlea olako jokabidea dauken berbak asko dirala Bermeo'ko euskcran. Azkeneko *-ie* ori geure *geurie* dogu.

Azkenean *e* dauken berbak, oneik be asko benetan, *a* mugatzaillea artzen dabenean aurreko arauan esan danari bidera urteten dautsoe eta *-ea* ori bermiotarrak *-ie* biurtzen dabe. Esaterako, *etxea etxie*,

Abidibe batzuk: Kotxie, ormie, imie, kalie ••

Abots bakar mugatzaillea: -ia > <ije

Berbeak azkenean *e* daukonean, / biurtzen ba'dogu Bermio'n *umea* > *umie*. Zer egin azkenean *-i* dagonean? Or be lan egin dau gure irudimenak eta esakerea erreztuteko ta gozotasuna emoteko bidea aurkitu dau: bitartean *-/-* bat sartu, abots lagundu, agogaiñeko iguzi ta dunduriduna (sonido palatal, fricativo, sonoro). Abots orren dunduria atsegiña da entzuteko ta esateko. Orregaitik zabaldu da Bizkai'rik erdian gitxi gorabera: *beia* > *beije*, *begia* > *begije*, *andia* > *andije*, *idia* > *idije*, *txkia* > *txiktje*, *ogia* > *ogije*.

Onetan be Bermeo'ko abostegia naikoa aurreratua, gastatua, da baiña ez azkenengo maillara eldua. Ikusi *Ogi'a* > *ogie* > *ogije*; *ogia* > *ogixa* > *ogixe*,

Abots bakar mugatzaillea: -oa > -ue

Berbearen azkenean *-o* daukagunean, ez da ain gaitxa *be oa* esatea eta toki askotan berba batzuk esateko *oa* darabille, esaterako *basoa*, *besoa*, *oilloa*. Oneik be berbea erderatik artua danean *-ue* artzen dabe, esaterako *panaderue*, eta berbea zarra danean, *-oa*, *kimiñoa*. Baiña Bermeo'tarrak onetan be erreztasun aundiagoa nai izan dabe eta azkenean *-o* dagoanean beti *-ue* esaten dabe: *basue*, *besue*, *oillue*, *kamiñue*, *panaderue*-- Baiña or naste txiki bat konpondu-bearra sortu da: Zelan berezitu *basue* (vaso) eta *basue* (bosque)? Agokaldiaren sakakadea, azentoa artu dabe bide lez: *bdsue* (vaso), *basue* (bosque).

Eta emen be len esandakoa barriro gogoratu bear. Bermeo'koa ez dala aurrerapenean eta izkuntza gastatean azkenera eldu. Begitu: *besoa* > *besua* > *besue* > *besu*.

Berbearen azkenean *u* dagoanean, esandako arau orreri bidera urteten jako eta *-o-i* artu bearrean, *-ua* artu. Bestea bardin doa aurera, baiña oartxu bat: Toki batzutan, idazle zarretan eta Arana'tar Sabin'en idazkeran *b* sartzen da bitartean: *Eskuba*, *buruba*, *diruba*, *bankuba*, baiña Bermeo'n, *eskue*, *burue*...

Itxitera beti

Errez ikusten da esandako arau orreitan Bermeo'ko euskerearen joka-bidea, abots bakartiak (bokalak) itxitera dala. Al dala *a* > *e*, *e* > *t* eta *o* > *u* eta /ren ostean agiri da, esan dogu ; ori sartzean, agogaiñerantza jokerea, palatalizatzerakoa.

Jokabide onetan, itxiterakoan esan gura dot, Bermeo'ko berbetea naikoa indartsu dago.

ABOTS BAKARTI BI JARRAIAN

Erreztasunera

Bokal edo bakarti bi berbearen barruaan alkartzen diranean be erreztasunerako jokerea argi agertzen da.

Esaterako ez da ain erreza *-au-* esatea, bata idegiena eta bestea itxiena diralako, eta orduan aldakuntza batzuk sortzen dira: *-au > eu*, esaterako *gaur > geur*, *dau > deu*, *ekarri dau > ekarri deu*, baiña *au* batzutan *ago'tik* etorria izaten da eta orduan ez da aldatzen esaterako *emen dago emen dau*, ez *emen deu*. *Lau* zenbakia be iñok ez dau aldatzen *leu* esateko, baiña bai *asmau > asmeu*, *daust > deust*.

Beste batzutan *auV* beste bide bat artzen dau esaterako, *dauko deko* edo *dako*.

Berbearen barruan *-ea-* datorrenean, azkenean artu dauan antzeko bidea artzen dau: *bear dot > biar dot > bier dot > bi dot*. Bermeo'n *bi dot* (*biot*) entzuten da.

Eta antzera jazoten da berba-barruan *oa* agertzen danean: *Goasen > guasen > guesen*, erri batzutan, *gosan* be bai, Bermeo'n *guesen* izan bear leuke, baiña ez da errez entzutekoa.

Eta azkenez, berba-barruan *-ai-* dagoanean *-ei-* biurtzen da, *zaitut > seitxut*, baiña ez beti.

Arauetatik kanpora *egongo gara > ongo gara* entzuten da Bermeo'n eta beste erri batzutan be bai. Esaldi orrek egin dauan bidea au da: *egongo gara > eongo gara > ongo gara*.

AGOKALDIEN ARTEAN ITXITEA

Esan dogun bakartiak itxiteko euskereak, batez be Bermeo'koak, daukan jokerea zabalagoa da oraindiño. Aztertu dagigun beste jazoera bat. Au ziurra da, beti beteten da eta Bizkai'rik geieneak bete be. Benetan polita da arau au eta erri-euskereak zeaztasun aundiaz betetan dauana, araua zein dan be jakin **barik**.

Gastelereak be, erri-maillan ba-dauko olako jokabidea eta «metafonia» esaten dautsoe. Esaterako, Asturias-aldean *verso* esateko *virsu* esaten da. Orra or araua beteta: azkeneko *-o* itxi eta *-u* biurtu eta *-«ren* indarraz aurreko *-e-* be itxi ta *-/-* biurtu. Orixe da euskereak daukan jokabide ziurra ta sarritakoa, baiña euskerearen eta gastelerearen artean sarritan jazoten dan

lez atzekoz-aurrera. Euskeran *edurra* > *edurre*, *Gatika* > *Gatike*. Berba-barruan *-/-* edo *-u-* dagoanean urrengo bakartia, bokala, itxi egiten da eta au millaka berbatan jazoten da, eta iñoz berba batetik bestera be bai. Esaterako: *eun da bi* > *eun de bi*.

Araua onelan idatzi geinke:

-u-.....-a- > -u-.....-e-
-i-.....-a- > -i-.....-e-

Eta Bermeo'ko berbetan zint20 ta zeatz beteten da. Obeto ulertzeko adibide batzuk: *bombilla* > *bonbille*, *dira* > *dire*, *mutill-i* > *mutille*, *arraiña* > *arraiñe*, *udan* > *uden*, *txakurra* > *txakurre*, *edurra* > *edurre*, *guzurra* > *guzurre*, *surra* > *surre*, *estula* > *estule*, *laguni* > *lagune*, *ura* > *ure*, *zu ta ni* > *zu te ni*, *orritxu bat* > *orritxu bet*, *ez dira* > *eztire*, *iru ta bat* > *iru te bat*, *lau ta bi* > *lau te bi*.

Entzun dautsedanai itaun au egin dautset: Zergaitik esaten dozu *bedarra* <sgaz eta *edurre* ^zkeneko -e'gaz? Eta erantzuna beti izaten da bardiña: Guk txarto dakigu berbetan-eta... Baiña ain arau ziur eta garbiakaz berba egiten dauanak ez dau txarto egiten. Ori kontuan artzen ez dauan jakituna da oker dabillena.

Gaiñera guk abotsen arteko gorabera oneik ez doguz aztertzen, ez doguz kontuan be artzen eta atzerritarrak ona etorten diranean bitxi orrein billa merkatori onen antzera ibiltzen dira eta or aurkitzen dabe izkuntzak alkarren parean ipiñita, zelako jokerak eta zergaitik daukazan gizonak berba egiten dauanean.

Jakitunak, billatzaillak olako jazoerak billatu eta kontuz artu bear ditu. Abostegiaren mundua oian edo baso-baltz aundi baten antzekoa da eta landara guztiak banaka aztertu bear dira, billaketa-lana egin gura ba'da.

ABOTS LAGUNDUAK (KONSONANTEAK)

Agogaiñeratzea (palatalizacion)

Lagundunen aldakuntzarik geienetak *-i-* bakartiaren indarra agertzen dabe, eta Bermeo'n aundia da izki txiki onek daukan indarra.

Len esan dogu, mugatzaillera ipiñikeran *-i* ta *-f'ren* bitartean ;' idatzi dogun dunduridun agogaiñekoa sortzen dala (sonora-palatal) eta ori, ain sarritan agertzen dan lez, eta beste alde batetik ain ots gozoa izan, berbeta guztiari gozotasuna emoten dautso eta entzungai atsegin biurtzen dau esaldia

ta berbetea dana. Len esandako itzak gogoratzeko, *begije*, *andije*, *txikije* (txikerra), *beije*, *idije*, *bijek*, *ogije*, *egije*... eta zenbat olako itz gozotzen dauzan ; gozo ta entzungarri onek, berbeta *gutijen* barrura *eztije* sartzen dauala.

Surreratua, agogaiñera

Baiña ba-dauz izki onek beste lagundun askotan be bere ikutuak.

Esaterako, agin-ondoko surreratua agogaiñeratu egiten dau (palatalizacian de la nasal). Errezago ulertzeko eran esanda, *n* aurrean *i* daukanean *ñ* biurtzen da eta ori erderatik artzen diran itzetan be bai. Esaterako *camino* > *kamiño*, *arrain* > *arraíni*, *gain* > *gaiña*, *mina* > *miñea*, *jardin* > *jadiña*, *egin* > *egiña*, eta beste aldakuntza batzuk eginda, *diputacion* > *diputaziño*. Bizkai'ko erri batzutan *ñ* surreratu ta agogaiñeratu au gitxiago erabilten da, baiña Bermeo'tarrak beti erabihen dabe.

Albotikoa, agogaiñera

Albotikoari (lateral) be /'k bere eragiña egiten dautso ta agogaiñeratu egiten dau, errezago ulertzeko / > // biurtzen da. Baiña beste arazo bat sortzen da emen: beti ez da jakiten jatorriz / ala // izan dan: *Dabil* > *dabillena*, *mutil* > *mutilla*, *il* > *illa*, *april* > *aprilla*, *abil* > *abilla*, eta abar.

Agiñetako gozoa, agogaiñera

Agiñetako gozoa (dental, sonora), dunderiduna, dunderia galdu barik agogaiñeratu egiten da. Esaterako *iñ jot* < *egin dot*. Or *n* > *ñ* ta gero *d* > ; dana /'ren indarrez.

Au sarritan jazoten dan gauzea da, baiña urrengoa sarriago.

Agiñetako gogorra, agogaiñera

Au ulertzeko aztertu dagigun *aita* berbea. Euskera landuan, apainduan, idatzian, esaten dan berba ori erriak ez dau iñon be esaten, euskaldun barriak eta euskerea gitxi erabilten daben zarrak baiño ez.

Lenengo, eta au Bizkai ia osoan, barruan /- dagoalako azkeneko -a -e- biurtzen da, *aita* > *aite* eta orain esku-artean darabilgun arazoagaitik, -i'k urrengo / ori agogaiñeratu egiten dau. Erri batzutan / bustia -/- sortzen da, *aita* > *aitta* > *aitte*, baiña Bermeo'k azkenera arte daroa agogaiñeratze ori eta *aitxe* biurtzen da.

Berba askotan jazoten da ori eta, gaiñera, berba batetik beste batera be igaro egiten da, esaterako *bi ta bi* > *bi te bi* > *bi tte bi* > *bi txe bi*, azkenengo au Bermeo'n. *Ez dot egin* > *eztot ein* > *etxuet eiñ*,

Agin-obiko txistularia agogaiñeratzea (Palatalizacian de la alveolar sibilante)

Bizkaia'n *s*, *z* bardin oguztuten dira eta *z*'-ren indarra be batera joake. Lagundun abots au agogaiñeratu egiten dau ?-k. Esaterako, *ekarri egizu ekarrisu* > *ekarrixu*, *gizona* > *gixona*, *izan* > *izen*, *gaisoa* > *gaixoa*, *bizia* > *bixije*, *Luisa* > *Luixa*.

Agogaiñekorik agogaiñekora

Abots onen indarra audia da berbetearen barruan eta agokaldi baten baiño geiagotan be agertzen dau bere aindarra eta *ñt* > *ñtx*, *llt* > *lltx*, *lld* > *lll*. Esaldi batzukaz obeto ulertuko dogu: *ibil dira* > *ibil dire* > *ibill jire*; *egin eta gero* > *in de gero* > *iñje gero*.

Amaitzeko, *z*'-ren eragaiñak gozotasun berezia emoten dautso Bermeo'ko berbeteari eta bakartiak naiz lagunduak itxi ta gozotu egiten dauz agogaiñeko abots dunduri gozokoak sortuaz.

Albotikoen eta dardaradunen indarra

Agin-ondoko txistulariak (alveolar sibilante) aurrean albotikoa edo surrekoa edo dardaraduna dauanean (lateral, nasal, vibrante) aldakuntza izaten dau Bermeo'n. *Kinzena* > *kintzenie*, *Konzeptzion* > *kontze*, *kanzion* > *kantziñue*, *lanza* > *lantza*, *manso* > *mantso*, *pensu* > *pentsu*, *konzienzi* > *kontzientzi*; *oneik* «'ren indarra dauke. *Falso* > *faltsue*, *pulso* > *pultsue*, *oneik* l'rena. *Popersa* > *popertsas*, *Marzelo* > *Martzelo*, *karzela* > *kartzela*, *esforzu* > *esportzu*; *oneik* r'rena.

Gogorak gozotea

Arau au Bizkai guztikoa eta Euzkadi'rik geienezan betetan dana da, eta Bermeo'n be beteten da. Berez gogorak diran abotsak, *p t k* bigundu egiten dira aurrean abotsurreratua daukenezan eta *b d g* biurtzen dira: *onto* izan bear leukena *ondo*, *nontik* > *nondik*, *egonko* > *egongo*.

Gozoak gogortzea

Aurrean dagoana *n* izan bearrean *s* edo *z* abotsa danean, aurreko arauaren aurkakoa izaten da jazokizuna, orduan gozoa gogortu egiten da. Au be Euzkadi'rik geienezan beteten dan legea da, baiña Bermeo'n be bai.

Esaterako, *ez dire* > *eztire*, *ez gatoz* > *ezkatoz*, *ez ba'da* > *ezpada*. Arati au ain /abala dalako, idazle batzuk idazteko be bide au artu dabe.

Ba-dira izkuntzalariak, jatorrak gogorak dirala diñoenak, *ezkatoz* da-la jatorra eta ez z'ren indarrez aldatua. Sarritan entzun dautsoгу ori Zatarain'dar Anbrosio'ri, eta eritxi ori ondo oiñarrituten dau.

Surreratzea

Gure berbeteak, izatez, ez dauko surreratzerik, ez dauko abots-bakar surreraturik. Frantzia'n eta Portugal'en egiten da ori asko eta auxe da: agokaldi edo silaba baten barruan *n* sartzen danean, bakarti ori aldatu.

Baiña Bermeo'ko euskereak be beste euskera batzuren antzera, ba-daukoz onetan bere jokerak.

Errien izenetan *n* kendu egiten da. Ez esaterako *Mundeka'n*, baiña bai *Mungie* > *Mugije*, *Lemoniz* > *Lemoix*, eta olakoetan.

Izenaren azkenean *-ano* > *ao*, *Galdakano* > *Galdakao* > *Galdako*, *Otxandiano* > *Otxandijo*; *-ona* > *oa* > *ua* > *ue*, *Bedarona* > *Bedaroa* > *Bedarue*, *-ena* > *ea~* > *ia* > *ie*, *Arenatara* > *Arietara*. Erderazko *arena* bera be *area* > *arie biurtu jaku*, *aritzatxu* > *arenatzatxu*; *-ana* > *ie*, *canpana* > *kanpaea* > *kanpaia* > *kanpaie*; *-ina* > *iñe*, *Filipinas* > *Filipiñe*, *Argentina* > *Arjentiñe*, *Markina* > *Mirkiñe*, eta aldakuntza au azaltzean ba-dakigu: i-ren indarra urrengo abots lagundua agogaiñeratzea da eta agogaiñeratze onek indar aundiagoa dauko galtzeak edo surreratzeak baiño eta *-a* > *e* aurreko /ren itxite indarraren ondorena da: *-on* > *oi*, ori be surreratzearen antzeko ondorena da, *Tonpon* > *Tonpoi*, *manton* > *mantoi*, *butron* > *butroi*; *-ion* > *iño* *Diputacion* > *diputaziño*, *aviacion* > *abiaziño*, *leccion* > *leziño*, eta or toki-aldatze bat edo «matatesis» bat dago; *-an*, bardin gelditzen da, *gaban* > *gabani*, *kapitan* > *kapitana* > *kapitxena*, baiña batzutan-tf# biurtzen da, *sacristdn* > *sakristaua*, *capelldn*, *kapellau*; *-en* ez da aldatzen, *tren* > *trcm*, *estena*; *-Un* ez da aldatzen, *Irun'en*; *-in* > *iñ* txakoliña.

Ikusten da ba, beste izkuntza batzutan ainbeste aldakuntza eragiten dauan surreko abots lagundun orrek ba-daukala bere eragiña gure Bermeo'n be. Ez beti bardin, esaterako toki-izenetan geiago eguneroko berbetan baiño, baiña egunerokoan be ba-dira gauza jakingarriak. Esatera *-n*- ren galtzea, berben azkenetak, *ego-adi*, *eda-ik*, *jodi*, *igoik* (ijeik)...

Galtzea

Euskereak, naiz abots bakarrak, naiz lagunduak naiz agokaldi osoak sarritan galtzen dauz; bear ba-da Bizkai'ko euskera apaindutik Bermeo'n

egiten dan euskerara galtzea erdia inguru izango da, % 40 bai gitxienez. Eta au era batera edo bestera Bizkai'rik geienean jasoten da. Bermeo'n baiño be Ondarroan geiago, barbarik geienetan abots bat gitxiago daukelako, esaterako *etxie* > *etxi*.

Berez euskera gaztelerea baiño laburregoa da, edozein itzulpenetan ikusi daiken lez, eta euskera idatzia baiño erriaren agotan dabillena oraindiño askoz laburregoa. Ba-da ori be oiñaze bat gure izkuntza ikasi gura dabeneztat!

Galtze onek be bere arauak daukaz, ain zeatzak ez ba'dira be. Goazen ba aztertzeraz.

-g- edo abots bakarren bitartean dagoan estarriko gozoa ta dunduritsua geienetan galtzen da Bermeo'n: *nago* > *nao* > *nau*, *dagoz* > *daoz* > *dauz*; *egongo* > *eongo*, *ongo*;

-d- edo abots bakartien artean dagoan agiñetako gozo dunduritsua be bardin galtzen da: *egingo dozu* > *eingo dozu* > *eingo zu*, *ingozu*; *egingo dozu'tik ingozu'ra*, amar abotsetik lau dira galdu diranak. Bardin *ikusiko dogu* > *ikusiko dou* > *ikusiko du* > *ikusikou* > *ikusiku* > *ukusku*, emen amaikatik seira etorri gara.

-dau- aditzaren asieretan geienetan kentzen da eta abostegiko arauak eskatu barik. Antxiñako jokera bat da ori: *kendu dautsat* > *kendutsat* > *kendutset*. Emen be 12 abotsetik bederatzira etorri gara. *Esan dautso* > *esantso*.

-k edo itzaren azkeneko estarriko gogorra be galtzen da eta ez Bermeo'n bakarrik, Bizkai'rik geienean eta orain dirala lau bat gizaldi, idazki zarretan ikusi daiken lez jazoten da ori: *Etzetik* > *etxeti*.

Antzeratutea

Abotsen artean antzeratzea asko ikusten da, Bermeo'n, bear ba'da geiago. Esaterako *Ikusi* > *ukusi*, *etorri* > *otorri* (au Bermeo'n baiño ez), eta *emon* > *omon* au be Bermeo'n. *Ikusi* > *ukusi* zabalagoa da eta Erronkari'n be egiten da Azkue'k bere azterpenean diñoan lez (Orozko'n be entzuten dala diño *Euskera* aldizkarian 1931n. urtean).

Eta ez dira bakartiak bakarrik antzeratzea daukenak Bermeo'n, lagunak be ba-dauke. Esaterako: *ez nago* > *ennau*, *ez noa* > *ennoa* > *enue*, *ez lekizu* > *elekizu ez zan* > *ezan*.

Toki-aldatzea

Bermeo'ko berbetan beste toki batzutan baiño geiago agertzen da «metatesis» edo toki-aldatzea, eta egunero erabilten diran berbetan be bai,

esaterako *idegi* > *iregi* > *irigi* > *igiri*; *erradie edarrie* (au **Ortuzar'en** «Oroigarriak» liburuan irakurri dot).

AZKENA

Lantxu onetan Bermeo'ko euskerearen abotsak eta euren mundua pizka bat aztertzen alegundu gara. Arlo onetan bide luzea dago oraindiño egiteko, batez be abotsak, fonemak, eurak zelan agozkatuten diran ikustean orretarako gaur erabilten diran lanabes zeatzak erabilliaz, edo Bermeo'ko euskerearen dciñua, tonema'k aztertuz. Doiñuaren mundua beste mundu bat da izatez, baiña ez dago abotsen mundutik ain urrin. Eta Bermeo'ko berbeteak doiñu berezi bat dauka, batez be atsoen berbeteak. Berton bizi garanak ez dogu ain nabarmen asmatzen, baiña kanpotik etorten diranai arrigarri jake.

Irakurleak astitsu ta eroapenaz irakurri ba'dau lan au, batez be Bermeo'-koa ba'da, zerbait ikasiko ebalu uste dot eta Bermeo'ko euskeratik izkuntzaren zabalera aundiagora begiratzeko bideak agertuko jakozan.

Eta amaitu baiño len, beste gauzatu bat: Zeaztasun txiki orreitan erri-jakiturei aundi bat dagoala konturatuko zan. Gizonak, bakoitxak bere lekuan barrua agertzeko bide bereziak artzen dauz eta orretarako itunik izenpetu barik besteakaz bide batera jotzen dau. Betiko leloa agertzen dau arazo onek: Zer-esana euki ezkeru esateko erak, izkuntzaren legedia edo «kodigua» sortzen da eta zer-esan ori beste batek, legedia dakian batek artzen dau.

Gramatikalariak erriaren berezitasun onei itzalatasun aundiaz begiratu bear leuskioe. Gramatika ez daitela izan laborategian egindako legedia, ez daitela izan «normatibo»a' erriak dauzen arauak batzen dauzana baiño, «deskriptibo»a geien baten.

Orretan ez gara txarrak euskaldunak. Gramatkarik jakin ez arren laster igarten dogu araua zein dan. Adibide bat: *Agur egiñez joan da* eta *agur egiñaz joan da*, ez dira esangura bardiñekoak eta beingo baten aterako genduke araua gramatikara begitu barik. Erria da «Basarteko Irastetxean irakaslerik jakitunena». Erriaren joscerea ikusi ezkeru, laster igarten doguz idazle zarren joskerako okerrak. Erriaren barren-barrenetik asi bear dogu ba euskerearen arauak billatzen.

Ba-dira erriaren barren orretan, orregaitiño, zuzendu-bearreko gauza batzuk, orain urte batzuk iñoz entzuten ez ziran gauzak eta gaur ainbeste erdera entzuten eta ikasten dogulako sartu diranak, *esaterako atzo ikusizut Bilbo'n*. Baiña ori zuzentzeko bidea erriak berak dauka, gaiso orrek ikututa dagozenak guztiak ez diralako. Orregaitik arau batzuk bear dira, baiña erritik ateratako arauak.

Eta euskera ikasteko biderik onena «dakigunetik ez dakigunera» jotea da. Eta alan da izan be bizitza arlo guztietan: Dakigunean oiñarritu eta ez dakigunaren illuntasuna kendu.

Orixe egin bear dogu euskerearen arloan be. Gaisoak ikutu barik dagozen euskaldunai entzun eta geurea osotu. Zori txarrez, gaisoa zabaltzen ba'da, arau biurtuko da, izkuntzeak be bere aurrerabidea daukalako, zuzena naiz okerra, baiña berea ta dan lakoa, jatorra.

Olazar'tar Martin